

ASTEAZKENA

2019/09/25

7. urtea, 1.114. zenbakia

107.6 fm

www.ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

«Gozatzen dut mendiko bizikletan eta jarraituko dut»

PATXI PLAZAOLA ESNAOLA
TXIRRINDULARIA

Errepidean egin du orain arte bere bidea orrendaindarrak, eta orain gutxi hasi da mendiko bizikletan ere lehiatzen //7



Patxi Plazaola, mendiko bizikletako proba batean. ATARIA



Mintzalaguna antolatzen duten eragileetako ordezkariak, atzo. JOSU ARTUTXA

Taldean ere euskaraz egitera bultzatzea xede

Mintzalaguna egitasmoak 'Tu-tik Gu-ra' lelopean ikasturte berriari hasiera eman dio; Galtzaundik antolatuta, eskualdeko sei herritan daude taldeak //2

Tolosako udal gobernuak herritarren presio fiskala baretu nahi du

Ondasun Higiezinaren Gaineko Zergaren errekarguan salbuespen gehiago txertatu nahi dituzte; Biharko osoko bilkuran erabakiko da //4

Etzi da Alegiako Udalaren jardueretan izena emateko azken eguna

Hirugarren adinekoen gimnastika, pilates eta yoga ikastaroetan izena emateko aukera dago; psikoestimulazio tailerra ere bada adinekoentzat //5



ORIA  **BEILATOKIA**
TANATORIO

Usabal Ind., 12· 20400 Tolosa
943 69 75 79

www.funerariaoria.com

‘Tu-tik Gu-ra’, norbanakoak taldean ere euskaraz aritzeko

Abian da Mintzalaguna egitasmoa; eskualdeko herritarren eskura daude euskaraz egiteko espazioak. Galtzaundik antolatu du, bertako eta inguruko eragileekin elkarlanean.

Josu Artutxa Dorronsoro

Ikasturte berriarekin batera martxan da Mintzalaguna egitasmoa. Eskualdeko mintzalagunek hasi dute ikasturtea, eta ekimenera batzen ari direnak talde berrietan hastear dira. Dagoeneko ezagunak dira euskaraz aritzeko espazio hauek. Astean behin elkartu eta ordubeteko saioak egiten dituzte, aisialdiari eta eguneroko martxari egokitu-takoak, eta erabat doakoak.

Hitzordu horietan, euskaraz ongi dakitenak eta euskara praktikatu nahi dutenak elkartzen dira, hiztun berriei leiho bat irekiz. *Tu-tik Gu-ra* da aurtengo leloa, eta Mintzalagunen komunitatean, norbanakoak taldean euskaraz praktikatzea bultzatze-ari egiten dio erreferentzia. Beraz, herritar guztiak gonbidatzen dituzte parte hartzera; euskara praktikatu nahi dutenak, nahiz praktikatu nahi duten horiei laguntzeko prest daudenak.

«Mintzalagunak norbere lotsak gainditzeko laguntzen du, praktikatzeko ikasten delako, eta jakina, harreman berriak euskaraz egiteko ere aukera bikaina eskaintzen du», azaldu du Idoia Lahidalga Galtzaundi Euskara Taldeko kideak. Hain justu, Galtzaundik jarri du abian ekimena, Andoingo AEK eta Aitzol Udala Euskaltegien, eskualdeko udalen eta UEMAren laguntzarekin.



Mintzalaguna antolatzen duten eragileetako kideak, aurkezpenean. J. ARTUTXA

BI POSTURA, ZORTZI HERRI

Bi aukera daude Mintzalagunen parte hartzeko. «Alde batetik, euskara ikasten ari delako edo euskaraz aritzeko zailtasuna duelako, praktikatu nahi duena Bidelari izan daiteke. Bestalde, egunerokoan euskaraz egiten duelako, euskaraz egin nahi duen horri lagundu nahi diona, Bidelagun izan daiteke».

Une honetan, eskualdeko sei herrietan daude Mintzalagun taldeak: Alkizan, Altzon, Anoetan, Tolosan, Villabonan eta Zizurkil. «Beste zenbait herrietan aurrean martxan jartzekoak gara, hala nola, Ibarra eta Ikaztegietan». Tolosaldeko 100 herritarrek hartu zuten parte pasaden ikasturtean, 23 taldetan banatuta. Euskal Herriko egoerari

begiratzeko, Mintzalagunen sarea zabalduz eta sendotuz doa. «6.000 lagunek baino gehiagok hartu zuten parte iaz, eta urtero geroz eta gehiago izaten dira».

IZEN EMATEA, HERRIZ HERRI

Alkiza. Udala dinamizatzailearekin jarri behar da harremanetan edo kultura@alkiza.eus helbidera idatzi.

Altzo. Izena eman nahi dutenek udal bulegoetara jo behar dute.

Anoeta. Anoetako Udaleko euskara zerbitzuan dago aukera. Bestela, 943 651 200 telefono zenbakira deituz edo euskara@anoeta.eus helbidera mezua bidaliz.

Ikaztegietan. Izena eman nahi dutenek udal bulegoetara jo behar dute.

Villabona. Udaleko euskara zerbitzura deituz (943 692 100) edo euskara@villabona.eus era idatziz.

Zizurkil. Udala bulegoetan, 943 691 012 zenbakira deituz edo bulegoa@zizurkil.eus helbidera idatziz.

Tolosa eta Tolosaldea. Galtzaundiren bulegoan, 943 655 004 zenbakira deituz edo galtzaundi@galtzaundi.eus helbidera mezua bidaliz.

IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu 943 65 56 95 zenbakira, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

Iragarki guztiak iragarkilaburak.eus-en



San Juan plazako autobus geltokiaren ondoan jarri dute pantaila berria. ATARIA

Informazio panel berria, Larramendin

Herriko eta udaleko informazioa guneezberdinetara gerturatu eta herritarren eskura jartzeko asmoz, hirugarren informazio-pantaila ezarri du udalak.

J. Artutxa Dorronsoro

Zezen plaza kanpoaldean eta Triangulo plaza ondoan ezarritako informazio-pantailak izandako «arrakasta eta harrera ona» dela eta, udalak hirugarren bat jarri du Larramendi auzoko sarreran. Panelen helburua «tokiko eta udaleko informazioa Tolosako guneezberdinetara gerturatzea eta herritarren eskura jartzea da modu erraz, eroso, zuzen eta azkarrean».

Euskarri hauek, informazio ugari eskaintzen dute, testu, irudi edo bideoen bitartez: kultur agenda, udal albisteak, eragileek antolatutako ekintzak edota informazio eta sentsibilizazio kanpainak. Larramendi auzoaren kasuan, «zirkulazio handiko guneezberdinetara gerturatzea eta herritarren eskura jartzea da modu erraz, eroso, zuzen eta azkarrean».



EPAIKETA BERTAN BEHERA

Zizurkilgo Kaxilda gaztetxearen okupazioaren harira, usurpazio arinagatik egotzita, Aiztondoko Gazte Asanbladako bi kide adierazpenak egitera deituak izan ziren, atzo, Tolosako Epaitegian. Epaiketa, ordea, bertan behera geratu zen, jabeen abokatuak ertzainaren lekuko batek aitortzea nahi zuelako eta eskaera egin gabe zutenez hau aurkeztu ez zelako. J. ARTUTXA



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
diruz lagundua

Agurtzane Zelaia zinegotzi izatetik alkate kargura pasa da Bidania-Goiatzen, eta Iñaki Amundarainek alkate moduan hirugarren agintaldiari hasiera eman dio Amezketan; biek ala biek zerrendatuta dituzte aurrera eraman nahi dituzten proiektuak, eta ikasturteari «gogotsu» eman diote hasiera

Eneritz Maiz Etxarri

Agurtzane Zelaia da Bidania-Goiazko EH Bilduko alkatea. Aurretik zinegotzi izateak lagundu dio udalaren funtzionamenduari berri izaten.

Aste gutxi dira alkate postuan zaudela. Zer moduz?

Hasten ari naiz, eta oraindik ere lurreratzen, baina ari naiz. Taldeak laguntzen du, baita aurretik ezagutzeak ere. Zerotik ez hasteak laguntzen du.

Nolakoa da Bidania-Goiazko alkatea izatea?

Baditu bere ardurak, baina baita une politak ere. Denbora gutxi daramat eta oraingoz libre antzean uzten naute, hala ere, esaten didate gehiago etorriko zaizkidala gainera.

Zinegotzien artean lan ardurak banatu dituzue?

Bai. Zinegotzien artean banatu ditugu. Festa batzorde bat dugu, eta beraiek arduratzen dira guztiaz; eta kulturarako ere herritar talde batekin antolatzen gara elkarlanean.

Zer proiektu edo gairekin ari zarete orain lanean?

Udaletxea berritzeko asmoarekin daramatzagu urte asko. Tei-

«Ea udaletxeko eraikina eraberritzen dugun»

AGURTZANE ZELAIA BIDANIA-GOIAZKO ALKATEA

Bidania-goiaztarrei parte hartzeko eskatu die Zelaia, eta herritarren bizi kalitatea hobetzen jarraitzeko lanean jarraituko duela dio



E. MAIZ

latua egin genuen, eta orain beste fase bati hasiera emateko eskaintzekin-eta lanean ari gara. Igogailua jarri, komunak...

Egokitzeko beharra du?

Bai. Taberna udaletxearena da, eta eraikin bera da. Komunak goiko pisuan ditu eta behean ja-

rri behar ditugu. Horrekin hasiko gara oraingoz. Jende asko pasatzen da udaletxetik, eta ez dugu igogailurik ere.

Lau urteei begira zer egin nahiko zenukete?

Lehenik eta behin behintzat lehengo mantendu. Gizarte zerbitzuetan buru-belarri sartuta nago herritarren bizitza kalitatea hobetzeko. Aurretik esan dudan moduan, ea udaletxearen eraikuntza osoa eraberritzen dugun. Bestetik, gazte dezente dago, eta etxebizitzaren gaiari heldu nahian gabilta. Gauzak begiratzeko hasi gara, eta hurrengo lau urteetarako erronkak horiek izango ditugu.

Bada etxebizitzaren eskaerarik?

Inkesta batzuk egin dira, eta egia da hotzean jendea kosta egiten zaiola baietz esatea. Lanketa bat egiteko asmoa dugu, jendea aurkeztu baino lehen guk zein aukera dauden ikusteko. Udaletxeak ez du bere jabetzako lurrik eta, beraz, ez da erraza.

Ekonomikoki zein egoeratan dago udala?

Ez gaude oso ondo, baina aurreko urteetan diru poltsa bat egiten joan gara proiektuekin hasi ahal izateko. Eskatzera joatea ez da erraza izaten, eta horregatik, zati bat gorde dugu.

Herri bizia da?

Bai. Bizi-bizi dago. Eskola bertan dago, guraso elkarte eta familia asko daude elkartzen direnak. Parte hartzerik gabe gauza asko ezin dira egin, eta erantzuten dutelako antolatzen dira hainbeste ekitaldi. Parte hartzen jarraitzeko eskatuko nieke, eta batez ere, 40-60 urte artekoek; herriko erabakietan ere parte hartzeko. Ez dut uste gu bakarrik inor garenik gauzak egiteko. Herri polit batean bizi gara, eta ea beraien laguntzarekin eta babesarekin, denon artean aurrera egiten dugun.

E. Maiz

Iñaki Amundarainek martxa hartua du Amezketa Udalean. Hirugarren agintaldia duzu.

Lan askorekin baina gustura hasi dugu ikasturte berria.

Nahi duzulako edo erreleborik ez delako zaudela karguan?

Bietatik esango nuke. Dagoeneko bi agintaldi eginda, errazagoa da eta martxa hartua dut. Talde berria izatearekin, agian, pauso hori ematea kosta egiten da.

Nolakoa da alkate izatea.

Duela zortzi urte garbi izan genuen herriko alkateak egunero egon behar zuela. Nahiko luze jozten dute tramitazioek, eta egunerokoan, herritarren beharrei erantzuteko beharrezkoa da. Bestela, herri txikia izatearekin amezketar guztiak ezagutzen ditut, eta egunerokotasunean edo asteburuetan ere, ezer bada, herritarrek gerturatzen zaizkizu.

Orain, zinegotzi berriei erakustea tokatu zaizu.

Lau zinegotziak berriak dira, baina esan beharra daukat, oso ondo prestatutakoak direla. Erakutsi baino gehiago, lagundu esango nuke; dituzten ilusioei eta asmoiei forma ematen lagunduko diet.

«Lan taldeetan parte hartzeko eskatuko nieke»

IÑAKI AMUNDARAIN AMEZKETAKO ALKATEA

EH Bilduko Iñaki Amundarainek hirugarren agintaldia hasi du, taldean zinegotzi berriak dituela; arlo ezberdinetako lan taldeak sortuko dituzte



E. MAIZ

Zer darabilkizue esku artean?

Urrian argiteri publikoa aldatzekotan gara. Baserri baterako bidea ere asfaltatuko dugu. Aurreko legealdian hasitako plan orokorrari jarraipena eman nahi diogu, eta bestetik urrian izaten

den kultur astea antolatzen ari gara. Horren barruan, azaroaren 17an, bada lau urtean behin plaza ateratzen den Albizuri harri handia, eta horrekin buru-belarri gabilta. Eragile ezberdinekin ere kultur eskaintza prestatzen

ari gara, eta errotaren berriztatzearekin, turismoari begira, zerbait egin nahiko genuke.

Lanez beteta zaudete, beraz.

Bai, eta zinegotziak berriak izatearekin, gai edo arlo ezberdinetako lan taldeak sortzeko asmoa dugu. Etxebizitzaren gaia askotan ateratzen da, eta etxe huts asko dago Amezketan. Herriko mendien eta basoen kudeaketan azken urteetan ez da ezer egin, eta horri ere heldu nahi diogu. Kulturarako ere talde bat nahi da. Lan taldea ez dakit, baina bidegorriaren inguruan herrian plataforma bat sortuta dago, eta harremanetan gaude. Eta lehen sektorearen inguruko lan taldea ere sortu nahi da, herriko ekoizleekin hitz eginez.

Lau urteei begira zer?

Erronka nagusia Amezketatik Ugarterako bidegorriarena da; ur zikinen saneamendua egin ostean egitea aurreikusita dago. Plan orokorra bukatu, eta herriko irisgarritasuna hobetzeko plana dugu, espaloiak kenduz. Lehengo zerbitzuei eutsi, eta hobetzea eta txertatzea nahiko genuke. Luzera begiratzeko, eskola berriaren proiektuari heldu nahi diogu, kokapen berria bilatuz.

Diruz nola dago udala?

Ondo, osasuntsu esango nuke.

Eta herria?

Baietz esango nuke. Langabezia handirik ez da, eta biztanlez jaitzen bagoaz ere, eskola osasuntsu dago, eta haurreskolan 11 haur daude.

Parte hartzaileak dira amezketarrak?

Pixka bat hori botatzen da faltan. Puntualki izaten diren kultur ekitaldietan jendeak parte hartzen du, baina erabakitzeko tokietan parte hartzea kosta egiten zaie. Hilean behin egitean da batzorde bat, edo orain lan taldeetan parte hartzeko eskatuko nieke. Denon artean Amezketa hobe egiteko jendearen parte hartzea ona izango litzateke.

Ordenantza fiskaletan aldaketak proposatu ditu udal gobernuak

Besteak beste, Ondasun Higiezin Gainerako Zergaren errekar-guan salbuespen gehiago txertatzea nahi dute. Biharko osoko bilkuran hartuko dute azken erabakia.

Josu Artutxa Dorronsoro

Tolosako udal gobernu taldeak datorren urterako ordenantza fiskalen proposamena aurkeztu du. Udal gobernuaren helburua da, ahal den neurrian, tolosarrek jasaten duten presio fiskala baretzea, betiere, Udalaren gastu eta diru-sarreraren arteko oreka mantenduz, «herritarrei eskainitako zerbitzuen kalitatea bermatzen jarraitu ahal izateko».

Hala, datorren urteari begira, gobernu taldeak Ondasun Higiezin Gainerako Zergaren errekar-guan salbuespen gehiago txertatzea proposatu du. Begoña Tolosa Ogasun zinegotziak azaldu duenez, «azken urteotan etxebizitza hutsak merkaturatzeko kobratu izan da errekar-gu hori, baina ikusi dugu badi-rela kontuan hartu beharreko hainbat salbuespen. Kasu ezberdinak aztertu ostean, beharrezkoa iruditzen zaigu aldaketa hori egitea egungo errealitateari ahalik eta egokien erantzuteko».

Horrez gain, ondorengo kasuetan ere errekar-gurik ez kobratzea proposatzen da: Etxebizitza urtarriaren 1a eta martxoaren 31 bitartean saldu bada, nahiz eta inor errolatuta ez egon; urtarriaren 1eko datarekin etxebizitza obretan egonez gero, eta udaleko obra lizentzia aurkeztuta, inor errolatuta ez badago ere; etxebizitzaren jabeek urtea kanpoan



Bi ordenantza fiskal aldatzea onartu zen otsailean, bozken gehiengoari esker. J. A.

igaro behar dutenean eta urtean zehar oinarritzko elektrizitate edo gas gastua egin dela ziurtatuz gero; eta azkenik, mendekotasun egoeran dauden pertsonen zaintzagatik, ardura hori duen senideak edota zaintza behar duenak etxebizitzaz lekualdatu behar duenean eta pisu berrian errolatu behar duenean.

Gobernu taldeak herriko etxebizitza hutsak merkaturatzeko neurriak hartzen jarraituko du eta etxebizitzak birgaitzeko programak sustatuko ditu gazteen emantzipazio aukerak areagotzeko. «Edonola ere, benetan hutsik dauden etxebizitzei errekar-gua ordainarazi behar diegu».

IGOERAK GAINERAKO TASEAN
Gainerako udal tasa eta zerga guztiek KPIak izandako igoera

bera izatea proposatu dute, eta zabor tasaren kasuan, %5eko igoera izatea, zerbitzuaren gastuaren eta diru-sarreraren arteko desorekari aurre egiteko. Instalazio, Eraikuntza eta Obren gainerako Zergan hobari berria txertatzea ere nahi dute. Zehazki, eraikinetan energia-eraginkortasuna hobetzeko egiten diren obrei emango zaie. «Tolosa jasangarriagoa izateko, garrantzitsua da energia aurrezteko politikak eta neurriak sustatzea».

Udal gobernu taldeak oposizioari aurkeztu zion proposamena, eta epe bat eman zion erantzuna jasotzeko. Ondorioz, 2020ko ordenantza fiskalen azken proposamena biharko osoko bilkuran (20:00etan) aurkeztuko da, onartua izanez gero, urtarri-lean jada indarrean egoteko.

Beste urte batez, udalak martxan jarri du Enplegu Plana

Langabezian dauden pertsonentzako 48 postu eskainiko dira aurten; Enplegune Azokan egingo da aukeraketa, azaroan.

J. Artutxa

Tolosako Udalak, Tolosaldea Garatzenekin eta Lanbiderekin elkarlanean, abian jarri du Enplegu Plana ekimena. Langabetuak kontratatzeke 48 lanpostu eskainiko dira aurten. Pertsona berriak kontratatzeke beharra edo nahia duten enpresek edota sal-tokiek Lehiberrin egin behar dute eskaera, eta gaur dute azken eguna.

Kontratazioek sei hileko iraupena izan beharko dute gutxienez, eta lanaldi osokoak izango dira. Diru laguntza bitartez kostu totalaren %75 ordainduko da, gehienez ere 6.000 euroko diru-laguntza emanez. Kontratazioak abenduaren 31 baino lehen egin beharko dira eta enpresak ezingo du joan den urtean kontratatutako pertsona bera hartu. Interesa duten langabetuek Lanbiden izena emanda egon beharko dute eta hautagaien kudeaketa Lehiberrik egingo du. Azken aukeraketa, berriz, Lehiberri Zentroan egingo da urriaren 10ean eta 11n egingo den Enplegune azokan.

Esperientzia gutxi edota bate-re esperientziarik ez duten gazte langabetuak kontratatzeke Lanbidek euskal enpresei diru laguntzak eskaintzen dizkie, lanean hasteko aukera izan dezaten. Lehen Aukera programa 30 urtez azpiko pertsonen zuzendua dago eta gazteen enplegurako gaitasuna hobetzea du helburu, lehen aukera baten bitartez.

Ossau bailarako arroiletara irteera, Oargirekin

MENDIA // Astebururako, Ossau bailarako arroilak jaisteko aukera eskaintzen du Oargi Mendi elkar-teak. Ostiralean irteengo dira, eta Eaux-Chaudes herriko aterpetxean egingo dute lo. Neoprenoa, eskarpinak, neoprenozko eskularruak, kaskoa, arnesa, zortzia eta lotzeko kaboa eramatea eskatzen dute. Izena emateko, 688 698 642 zenbakira deitu edo oargimendi@gmail.com-era mezua idatzi behar da.

Mendi Bizikleta Eskola, Zumardia elkar-tearen eskutik

KIROLA // Urriaren 7tik maiatzaren 25era bitarte, Mendi Bizikleta Eskola antolatuta du Zumardia elkar-teak, 10 eta 14 urte arteko haurrentzat. Ikastaroko saioak Uzturpe frontoian eta bertatik kanpo izango dira, astelehen arratsaldeetan, Beñat Azurmendiri irakaslearekin. Gutxienez 6 eta gehienez 10 laguneko taldeak izango dira, eta prezioa hilean 36 eurokoa da (bazkideek, 33 euro). Informazio gehiagorako eta izena emateko, www.zumardia.eus webgunera bisita daiteke.

Lanbide Heziketa nola finantzatu jakiteko saioa

EKONOMIA // Tolosaldea Garatzenek eskualdeko industria sareko lehiakortasuna hobetzeko asmoz, hitzaldiak antolatzen jarraitzen du. Bihar, Lanbide Heziketa enpresan nola finantzatu jakiteko aholkuak emango ditu Ana Ugalde Gipuzkoako Bazkondeko ordezkariak, 09:00etatik aurrera, Lehiberri zentroan. 943 654 501 zenbakira deituz edo lehiberri@tolosaldea.eus-era idatziz eman daiteke izena.

TOLOSA

ONENETAN ONENA
ERDI-PREZIOAREN
ERDI-PREZIOAN

Eta orain...

LEHENGO
HILA DOAN!

19'9€
/hil



euskaltel

Agirrebarrena eta Guridi epaituak izaten ari dira Madrilen

Bakoitzarentzat 40 urteko espetxe zigorra eskatu du fiskaltzak; herenegun hasi zen epaiketa eta gaur amaituko da

Erredakzioa

Lizartza / Amasa-Villabona

Espainiako Auzitegi Nazionalen herenegun hasi zen Aitor Agirrebarrena lizartzarren eta Iñigo Guridi billabonatarren aurkako epaiketa. Maximo Casado espetxe funtzionarioaren aurkako atentatua burutzea leporatzen diete.

Agirrebarrena eta Guridirekin batera, Xabier Garcia Gaztelu eta Asier Arzallus epaitu dituzte. Guztientzat 40 urteko espetxe zigorra eskatu du fiskaltzak.

Garcia Gazteluri 2000. urtean Maximo Casadoren aurkako atentatua agintzea leporatu diote, ETako buruzagi bezala; Aitor Agirrebarrena, Iñigo Guridi eta Asier Arzallusi ETako Ttotto komandoa osatzea eta espetxe funtzionarioaren aurkako atentatua burutzea.

HERRITIK BABESA ADIERAZTERA

Laurek deklaratzeari uko egin diote, eta epaiketak hasiera batean hiru egun iraungo ditu. Gaur izango da azken eguna. Astelehen arratsaldean Villabona eta Lizartzatik bi furgoneta abiatu ziren epaiketara, atzoko saioan epaituei babesa azaltzeko, eta era berean «konponbidearen bidean urratsak emateko garaia dela», aldarrikatzeko.

Atzo, akusazioak deitutako lekukoek deklaratu zuten, eta epaituek ez zuten hitzik hartu. Gaur izango dute azken saioa.

Pintura ikastaroan izena emateko epea zabalik dago

IKAZTEGIETA // Azken urteetako ohiturari eutsiz, aurten ere, pintura ikastaroa egingo da Ikaztegieta. Astelehenetan 18:00etatik 20:30era izango da saioa udaletxeko aretoan, eta hilean 45 euro ordaindu beharko da. Oraindik izena eman ez duenak ostirala du horretarako azken eguna, eta udaletxean bertan eman beharko da izena.

Herri batzarra, katuekin dagoen arazoa lantzeko

IKAZTEGIETA // Ikaztegieta Udalak batzar irekia deitu du herrian dauden katuekin dagoen arazoari irtenbidea bilatzeko. Hilak 26, osteguna, 20:00etan egingo da batzarra udaletxeko erabilera anitzeko gelan. Herriarrei bertaratzeko deia egin die, eta alde aurretik jakinarazi dute bileran hartzen diren erabakiak lotesleak izango direla.

Herrigintza elkartetik Azpea upategira bisita, urriaren 19an

IKAZTEGIETA // Herrigintza elkartek Nafarroara antolatu du irteera, Irunberri herriaren ondoan dagoen Azpea bodegara. Urriaren 19an 10:00etan aterako dira kiroldegiko aparkalekutik. Lehenik, Zangoza herria bisitatu dute, eta upategiko bisitaren ostean 15:00etan bazkalduko dute. Itzulera 21:00ak aldera izango da. Bazkide ez direnek joateko aukera dute; bazkideek 40 euro eta ez direnek 50 ordaindu beharko dute. Izena ematearekin batera ordaindu beharko da, eta izena eta dirua gutun-azal batean sartu behar dira elkarte-ko buzoian. Hilaren 30a da apuntatzeko azken eguna.

Sasoian egoteko eskaintza, Alegian

Alegiako Udalak, ostirala bitartean, kirol eta kultur eskaintzetan izena emateko epea zabalik du kultur etxean

Eneritz Maiz Etxarri Alegia

Inaxio Begiristain Kirol eta Kultur Etxeak aerobik, hirugarren adinekoen gimnastika, pilates eta yoga ikastaroetan izena emateko aukera zabalik du. Ostirala da izena emateko azken eguna eta kultur etxera bertara joanda eman beharko da, 10:00etatik 13:00etara edo 15:00etatik 21:00etara.

Aerobik 16 urtetik gorakoen-tzat izango da, eta astelehen, astearte eta ostegunetan 19:00etatik 20:00etara eskainiko da. Urriaren 19an hasi eta ekainaren 18an amaituko dira saioak. Bazkideek 20 euro ordaindu beharko dituzte hilean, eta ez direnek, aldiz, 40 euro.

Hirugarren adinekoen gimnastika astelehen, asteazken eta ostiraletan izango da 11:00etatik 12:00etara. Urriaren 2an hasiko dira saioekin, eta hilean 15 euro ordaindu beharko du bakoitzak. Azken saioa ekainaren 19koa izango dute.

Pilates astearteetan eta ostegunetan emango da, 16:45etik 17:45era edo 17:45etik 18:45era. Urriaren 19an hasiko dira eta ekainaren 19ko saioarekin amaituko da ikasturtea. Kasu honetan ere bazkideek 20 euro eta gainerakoek 40 euro ordaindu beharko dute.

Azkenik, yoga egiteko aukera dute alegiarrek. Astelehenetan izango da 17:00etatik 18:30era edo 18:30etik 20:00etara. Urriaren 7an hasi eta ekainaren 15ean amaituko litzateke, eta bazkideek 40 euro ordaindu beharko



Dagoeneko hasi dira adinekoak psikoestimulazio tailerrean. ATARIA

dute hilean, eta ez direnek, 55 euro.

LUDETEKA ETA GAZTELEKUA

Urriko bigarren astean jarriko dituzte martxan ludoteka eta gaztelekua. Ludoteka zerbitzua 6 eta 12 urte bitarte haurrei zuzenduta dago, eta gaztelekua 12 eta 17 urte bitarteko nerabeentzat izango da.

Ludotekan parte hartu nahi dutenek ezinbestekoa dute alde aurretik izena ematea. Hilak 27, ostirala, bitartean kultur etxetik pasa beharko dute. Plaza mugatuak izango direla ohartarazi du Gazteria sailak, eta izena eman duten guztiei, hilaren 30etik aurrera, telefonoz jakinaraziko die onartuak izan diren edo ez.

Behin izena emateko epea itxita, arduradunek ordutegiak antolatuko dituzte apuntatu diren haur kopuruaren arabera.

Aurtengo berrikuntza larunbat arratsaldeetan ez dela zerbitzurik eskainiko da, baina, anto-

latzaileek, trukean, astean zeharreko ordutegia zabalagoa dela nabarmendu dute. Era berean, bai ludoteka eta baita gaztelekua ere, doako zerbitzuak direla gogorarazi dute.

PSIKOESTIMULAZIO TAILERRA

Gizarte zerbitzuek sustatuta eta Lahar Elkargoaren eskutik, adinekoentzat psikoestimulazio tailerra eskainiko da. Adinekoei zuzendutako ekimenari jarraipena ematea erabaki du udalak, aurreko ikasturteetan izandako arrakasta ikusita. Saioak astelehenetan eta asteazkenetan izango dira, 16:00etatik 18:00etara, jubilatuen elkartearen.

Tailerrean parte hartu nahi dutenek, saio batera agertzea nahikoa izango dutela izena emateko adierazi dute udaletik, eta 2020ko ekainaren 20an amaituko dira saioak.

Udaletik adinekoak ekimenean parte hartzera animatu nahi dituzte.



harpidedun izateak badu saria zozketa

1 ARRIKRUTZ Oñatiko kobak

Espeleotxiki; abentura familian. Familiarentzako sarrera.

Umeak 6 urtetik gora izan behar ditu. Bista eguna, taldea osatzeko jarriko da. 943 08 20 00 / arrikruz@onati.eus / OÑATI
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**



2 DONOSTIAKO AQUARIUMA

Bi lagunentzako bina sarrera



www.aquariumss.com

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**

3 ALTZOA proiektua – Goiogana baserria

Bi lagunentzako gau bateko egonaldia (behe denboraldian)



altzoa.eus
AMOROTO – Bizkaia

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**

3 OSIN MASAJE ETA ESTETIKA ZENTRUA

Masajea



609447090
665754930
Hozpel kalea
ANOETA

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **54**

Parte hartzeko deitu **902-82 02 40** telefono zenbakira edo sartu **www.ataria.eus** webgunean • Aste honetako astearte, asteazken eta ostegun goizean. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.

Altuna III.a, Artola eta Jaka, lau eta erdikoan

Final-zortzirenetan, Jakak Bakaikoa izango du aurkari, eta Artolak Peio Etxeberria

Asier Imaz

Lau eta erdiko pilota txapelketa aurkeztu zuten atzo eguerdian, eta bertan izango dira eskualdeko hiru pilotari: Jokin Altuna, Erika Jaka eta Iñaki Artola. Jaka eta Altuna A multzoan sartu dituzte, eta Artola B multzoan ariko da. Txapelketa final zortzirenetan hasiko da, Irribarria eta Victorren arteko partidarekin, urriaren 4an. Hurrengo egunean jokatu du eskualdeko lehen ordezkariak, Jakak. Lizartzarrak Bakaikoa izango du aurkari Etxarri Aranatzan. Artolak Peio Etxeberriaren aurka jokatu du final-zortzirenetako kanporake-



Atzo eguerdian egindako aurkezpenaren une bat. ASPEPELOTA

ta, urriaren 7an, Tolosan. Laugarren kanporaketa Elezkano II.a eta Lasoren artekoa izango da.

Final-laurdenetara pasatzen diren pilotarien zain Urrutikoe-txea, Altuna III.a, Bengoetxea VI.a eta Ezkurdia egongo dira. Azken bi hauek B multzoan eta lehen biak A multzoan.

Hiru jardunaldiko ligaxka ba-

ten ondoren, finalerdietako partidak azaroaren 2an eta 3an jokatu dira. A multzoko lehenak B multzoko bigarrenaren aurka eta A multzoko bigarrenak B multzoko lehenengoaren aurka. Hirugarren eta laugarren posturako lehia azaroaren 10ean jarri dute, eta finala, Iruñeko Nafarroa Arenan, azaroaren 17an.

Amundarain eta Mateos, sarituak igeriketako galan

Erredakzioa

Gipuzkoako Igeriketa Federazioak bere gala egin du asteburuan Azkoitian, eta bertan hainbat sari banatu ditu. Saridunen artean, ur zeharkaldien atalean, Ioseba Mateos ibartarra eta Erika Amundarain billabonatarra daude.

Bi igerilariak hirugarren postua jaso dute senior mailan. Gizezkoetan horrela izan zen sailkapena: 1. Ruben Torres, 393 puntu; 2. Enaitz Goñi, 390 puntu; eta 3. Ioseba Mateos, 386 puntu. Emakumezkoen sailkapena honakoa izan zen: 1. Irati Arza-



Ioseba Mateos eta Erika Amundarain, galan jasotako sariekin. ATARIA

Ilus, 395 puntu; 2. Nerea Santos Sastre, 393 puntu; eta 3. Erika Amundarain, 385 puntu.

Unai Iribar, nagusi Zaldibiako proban

Erredakzioa

Laboral Kutxa taldeko Unai Iribar txirrindulari ibartarrak irabazi du Zaldibiako 9. Txirrindularitza Sari Nagusia, Gailurre-rantz elkarteak antolatuta. Lehendakari Txapelketako 9. eta azken proba zen Zaldibiakoa. Iribarren atzetik Bastien Bareille eta Iker Ballarain iritsi ziren helmugara. Ballarain izan da Lehendakari Txapelketa irabazi duena, eta Iribar hirugarren geratu da.

Sailkapenari dagokionez, mendiko saria Aritz Kortabariak lortu zuen. Bestalde, Caja Laboral taldeko Sergio Gines izan zen tarteoko helmugan txapelduna.



Unai Iribar, txapelarekin. GOIERRIKOHITZA

pelduna. Goierriko TB-Laboral Kutxa izan zen taldekako sailkapenean irabazlea.



ARRUABARRENA, TXAPELDUN SEULEN

Lara Arruabarrena tolosarrak Tatjana Maria alemaniarrekin batera Seulgo Torneo irabazi du binaka. Finalean 7-6, 3-6 eta 1-0 nagusi dira, Hayley Carter eta Luisa Stefaniren aurka. Tolosarraren binakako bederatzigarren titulua da Seulgoa. Binakako azken titulua abuztuaren irabazi zuen, Karlsruhe tenis txapelketa, Renata Voracova tenislari txekiarrekin batera. ATARIA

Hilberriak eta urteurrenak



ROMAN GANZARAIN ETXEERRIA

1947 - 2019

Gogoratuko haugu kide jator gisan ez haugu ta alperrik horren gertu izan ezkertiar, euskaldun Roman hala hintzan eredu herrigintzan eta lagungintzan.



Alegiako ezker abertzalea

hilberriak • eskertzak • urteurrenak

ataria jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €
HANDIA (124mm X 64mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €
ESKERTZA (38mm X 64mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

«Hobeto moldatzen naiz mendi bizikletako proba luzeetan»

**PATXI PLAZAOLA ESNAOLA
TXIRRINDULARIA**

Adin muga dela-eta, inguruan egiten diren errepideko proba gehienetan ezin duenez parte hartu, orain gutxi hasi da lehiatzen mendiko bizikletan txirrindulari orendaindarra.

Imanol Garcia Landa Orendain

Bi gurgipilen gainean pedalei ematea gogoko du Patxi Plazaola Esnaolak (Orendain, 1990). Errepideko txirrindularitzan afizionatu mailan aritu zen, eta egun ere tarteka aritzen da ahal duen lasterketetan parte hartzen. Esaterako, aurten Gipuzkoako txapelketan lehen postua egin zuen elite mailan, eta Euskadikoan hirugarren amaitu zuen. Bestalde, iazko Quebrantahuesos probako lehen postua eman diote, lehenengo biek dopin kontrolean positibo eman ondoren.

Azkenaldian mendiko bizikletarekin hasi da lehiatzen eta hainbat lasterketa egiten ari da, tartean uztailean egindako Munduko Kopako proba bat. Parte hartzen duen karrera guztien kronika egiten hasi da orain dela pare bat hilabete eta *patxirindulari.com* blogean zintzilikatzen ditu.

Quebrantahuesos probarekin hasiko gara. Iaz helmugan hirugarren izan zinen, baina orain gutxi jakin duzu lehen postuan geratu zarela.

Helmugara lehenengo bi postuetan iritsi zirenen dopin kasuak ateratzen joan dira. Lehenengo uda aurretik-edo jakin zena, aurrena geratu zenak probaren batean positibo eman zuela, eta orain jakin da bigarrena egin zuenak, eta 2017an irabazi zuenak, positibo eman duela. Berez Quebrantahuesos ez da lehiaketako proba bat, martxa bat da, baina esan daiteke iritsitakoen artean eta garbi joan ginenen artean, ni izan nintzela aurrena.

Ezustean harrapatu zaituzte dopin kasu horiek? Ohikoak dira horrelakoak?

Zuzena izango banintz, esango nizuke ezustean harrapatu ninduela. Baina, egia esan, mundu honetan badira fama txarragoa eta hobea dutenak. Kontua da, maila honetan, berez lehiaketa ez denez, kontrol gutxiago egiten direla. Beraz, horrela ibiltzen direnak harrapatzea zailago izaten da. Bi hauek Master mailan ere lehiatu egiten dira, eta proba gehiago pasatzen dituzte eta horietako batean erori egin dira. Tamalez, esan beharra dago dopin analisiak, bai Master mailan, bai afizionatuetan, oso gutxi izaten direla.

Eta zer suposatzen du Quebrantahuesos lehen postuan amaitu zenuela jakiteak?

Niretzat ez da ezer aldatzen. Nik ahal dudan ondoen egitea, ahal nuen ondoen pasatzea gustatzen zait. Egia da denok berotu egiten garela eta ahal dugun ondoen egitera joaten garela. Bestalde, jendeak gehiago kontuan hartzen du lehen postu hori, bigarren geratzen denarekin jendea ez delako gogoratzen. Halere, lehen postu hori horrela lortuta, ez dakit jendea ohartuko den. Niretzako, egia esan, ez da aldatzen.

Aurretik ere parte hartutakoa zara proba horretan?

19 edo 20 urte nituela atera nintzen, baina urte askotan ez nintzen gehiago atera. Gero Eguberri batzuetan anaiak dortsala oparitu zidan. Ondo egin nuen eta hurrengo bi urtetan atera naiz. Aurreko urtean azkenekoa izan zela esan nion. 2017an bosgarren iritsi nintzen, eta positibo eman duten bi hauek aurretik zeuden. Eta 2016an atzerago. Izan ere, Quebrantahuesosen jende asko ateratzen da, eta irteeran aurrean atera edo atzerago,



MUNDUTIK BEGIETARA

eragin handia du. Urte hartan oso atzean atera nintzen, nik bakarrik egin nuen proba guztia, eta oso gustura geratu nintzen. Baina postuari dagokionez, ez dakit zenbagarren egin nuen, ehungarren edo agian berrehungarren.

Beraz, ez duzu asmorik gehiagor parte hartzeko?

Oraingoz ez, behintzat. Zikloturista probek gero eta gutxiago erakartzen naute. Tarteka egin ditut batzuk. Aurten pare bat egin ditut, bat Alpeetan, eta beste Pirinioetan. Mendiko bizikletan ere ibiltzen naiz eta gustatzen zaidana da proba batzuk egitea, dataz-eta ondo etortzen zaizkidanak, baina saiatzen naiz aldatzen, eta martxa eta lasterketa ezberdinak ezagutzen.

Txirrindularitzan aritutakoa zara, eta afizionatu mailan ere lehiatu zinen.

Afizionatuetan berandu hasi nintzen, baina egin nituen urte batzuk, adin mugak utzi arte. Euskadin ia lasterketa guztiak Lehendakari edo Euskaldun txapelketakoak dira. Lehendakari 23 urte azpikoentzako da, eta Euskaldun txapelketan 26 urte arte parte hartu daiteke. Hortik kanpora ez dago ia lasterketarik. Esaterako, adin mugarik ez dago

Gipuzkoako zein Euskadiko txapelketan. Azken hauetan parte hartu izan dut aurten, lehia gusatzen zaidalako.

Azkenaldian mendiko bizikletan zabilta. Besteak beste, maratoi modalitateko Munduko Kopako proba batean izan zinen, eta maila onean aritu zinen, 16. bukatuz.

Oroitzapen polita daukat. Mount Blanc inguruan izan zen, eta begiz jota nuen. Aurten anaia eta lagun batekin joan ginen oportetara inguru horretara, eta aprobetxatu nuen proban parte hartzeko. MB Race izena du, eta antolatzaileek diotenez, mendi bizikletan egiten den egun bateko lasterketa gogorrena da. 140 kilometro eta ia 8.000 metro aldapa gora ditu. Oso polita da, bueltatzeko modukoa, ondo antolatuta eta paraje ederrekin.

Noiztik ari zara mendiko bizikletan lehiatzen?

Errepidea egin izan dudanean ere, denboraldia bukatzerakoan, udazkenean-eta, hiru-lau irteera egiten genituen. Orain hiru urte mendi bizikleta hobeagoa erosi nuen lehiaketetan parte hartzeko, afizionatu bezala ezin nuela errepideetan gehiago parte hartu. Pare bat probetan parte hartu nuen eta gustatu zitzaiz-

dan. Aurreko urtean proba gehiago korritu nituen, eta beti elkartzen nintzen euskaldun batzuekin. Izan ere, proba gutxi daude hemen inguruan, eta Kataluniara edo Errioxara joaten ginen. Euskaldun horietako batzuk talde bat daramate Oartzunen, Urkia-Amets, Oarsoaldeko Txirrindulari Eskolak duen taldea, eta esaten zidaten beraiekin hasteko, eta lasterketetan parte hartzeko. Horrela animatu nintzen, eta aurten lasterketa gehiagotan parte hartzen ari naiz. Gipuzkoan ez daude lasterketa asko, eta dezente mugitu behar da mendi bizikletan lehiatzeko.

Emaitza nabarmenik lortu duzu?

Batetik, zirkuitu batean bueltak emanez egiten diren lasterketak izaten dira, eta horietan ez naiz ondo moldatzen. Ez naiz indar bizikoa eta teknika falta zait. Beraz, entrenamendu bezala hartzen ditut horiek. Normalean hamargarren postutik atzera ibili naiz. Proba luzeetan hobeto moldatzen naiz, maratoi eta ultramaratoietan, baina hemen gutxi egiten dira. Ekainean bat izan genuen, Eusko Bike Challenge, eta hor hirugarren egin nuen. Azkenaldian nahiko gustura nabil, baina zorte txarra izaten ari naiz. Euskadiko Maratoiko txapelketan aurrena nindoala, tarte txiki batekin, zazpi kilometroren faltan bidegurutze bat gaizki hartu nuen, eta laugarren geratu nintzen orokorrean eta hirugarren elite mailan. Aurreko asteburuan, bi lasterketetan, lehenengoan atzeko gurgila zulatu nuen eta bigarrenengoan aurrekoa, eta bietan laugarren bukatu nuen. Beraz, kostatzen ari zait podiumean sartzea... Halere, gustura nabil, gozatzeko ateratzen naiz. Hori bai, dortsal bat jartzerakoan, denak lehiarako prest jartzen gara.

Mendiko bizikletako lehiaketetan ez dago adin mugarik, errepidean bezala?

Mendiko lasterketetan bezala izaten da. Profesionala izan edo herrikoia, denak batera ateratzen dira, maila berean. Euskal Herrian profesionalik ez dago; batzuk badaude babesleren batedo dutenak. Espainiako lasterketa batera joaten bazara, aurreneko bost edo hamar izaten dira profesionalak, eta hortik atzera gu bezalako txirrindulari normalagoak, nolabait esatearren.

Ni mendiko bizikletan gustura nabil, gozatzen dut, eta jarraitzeko asmoa dut. Datorren urtean beste lasterketa batzuk probatuko ditut, eta taldekoekin ari gara irteeraren bat prestatzen.



ASTEAZKENA, 2019KO IRAILAK 25
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezera arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ASTEAZKENA 25

AGENDA

Deialdiak

Tolosa. Emozioen kudeaketaz tailerra, Inmakulada ikastetxean, 16:00etan, Buru Bihotzez elkarteak antolatuta.

Tolosa. Galtzaundiren irakurle taldea, 19:00etan, kultur etxean, Yurre Ugartek dinamizatuta. *Gauza baten ametsa* eleberria izango dute hizpide.

Tolosa. Tolosako mendizaletasunaren lehen urratsak hitzaldia, kultur etxea, 19:30ean.

ATARIA IRRATIA

09:00. Eguneko berriak; Tolosaldea Garatzenen tarte, Tolosaldeko alkateei elkarrizketak, gaurkoan Amaia Azkue Berastegiko alkatea...

11:00. Herrikirolak. Asier Imazek gidatuta, Joxe Angel Sarasolarekin.

12:00. Entzuteko Jaioak. Musikari eskainitako tarte.

16:00. Zebraidea. Arroza Sareko magazina.

18:00. Goizeko saioen onena.

20:00. (H)arinaizela. Imanol artola 'Felix'-ek gidatutako bertsolaritzari buruzko saioa.

28 KANALA

13:30. Gaurkoan Tolosalde

16:30. Ur eta lur

17:30. Gaurkoan Tolosalde

21:30. Gaurkoan Tolosalde

22:00. Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa (Ordizia)

22:30. Zer jan

23:30. Gaurkoan Tolosalde

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Ignacio Olarreaga Aramburu, Korreo kalea, 2. 943 67 0128.

TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Amartetz auzoa, 9. Telefono zenbakia: 943 67 5118.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA



Gaur. Eguna kaxkarretik hasiko baldin bazaigu ere, orduak aurrera egin ahala hobera egingo du eguraldiak. Goiz partean oraindik ere hodei dezente agertuko da, eta euri pixka bat egingo du, baina orokorrean oso gutxi botako du. Arratsalde partean atertze joera hartuko du eta ostarte batzuk ere zabalduko zaizkigunez eguraldi argiagoa izango dugu. Hori bai, ipar mendebaldeko haizea ibiliko denez egunaren lehen zatian tenperatura maximoek behera egingo dute; 20-22 gradutik pasatzea kosta egingo zaie termometroiei.



Bihar. Termometroak koska pare bat gora egin eta eguraldi polita izango dugu, batez ere, egunaren erdiko orduetan. Goizean goiz hodeigune batzuk izango ditugu, baina, garbitzera egingo du. Tenperatura maximoak 22-24 graduan kokatuko dira.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esaneren eta iritzien erantzukizunik.

Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak abian jarritako 'Don't be Dummy' kanpainak geldialdia egin du Tolosan; trafikoko istripuen inguruko testigantzak jaso dituzte Tolosako gazteek.


Trafikoko istripuak ekiditeko

Asier Imaz Tolosa

Don't be Dummy, Zukez duzu ordezkorik kanpaina iritsi zen atzo Tolosako Leidor aretoa. Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak antolatutako ekimenean Tolosako lau ikastetxe hartu dute parte.

15 eta 20 urte bitarteko gazteek hartu zuten parte Segurtasun Sailaren ekimenean. Hain juxtu, bi txandatan banatuta, Laskorain Ikastola, Herrikide, Tolosako Inmakulada Lanbide Ikastola eta Orixe Insitutuko ikasleek aretoa lepo bete zuten. Trafikoko istripuen prebentziorako tailerra forma didaktikoan eskaini zuten, zuzeneko testigantzekin. Hala nola, Borja Marcos udaltzaina, Mikel Zubeldia suhiltzailea eta bizkarrezur muineko lesioa duen Alaitz Arbilla aritu ziren kontaktetan. Testigantza horien bitartez, «gazten barnea mugitzea» du helburu Segurtasun Sailaren kanpainak. «Bizipen horiek oso hunkigarriak izaten dira, eta gazteengan inpaktu handia izaten dute», azaldu dute.

Don't be Dummy ekimenaren barruan 70 saiotik gora burutu dira Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 44 udalerritan. Guztira 16.900 ikaslek parte hartu dute ekimenean.



Atzo Leidorren, gazteak testigantzak entzuten. A. IMAZ

ZORION AGURRAK

Urtebetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

ZORION AGURRAK



Zorionak!!

##Zorionak kudeator #berdin.
#hamaiketako aekarri traola#
#igoera #herrixiki #211
#bibainogehiagoposibledira



4,8tik 7,2ra bitarteko kontsumo mistoa (L/100km). CO2 isurketak (g/km) 127tik 168ra.

XC40 VOLVO
BERRIA 27.200 EUROTIK *



Gidatu ezazu zure bizimodua

Ikus ezazu autosuecia.es webgunean

Auto Suecia

Jauregui auzoa, 76, Hernani (Gipuzkoa)

943 33 11 31

#VolvoXC60



* Volvo XC40 T3 Base Premium Edition eskuzko auto abiadura aldagailua; penintsularako salneurria (Extremaduran izan ezik) eta Balear Uharteetan 27.200 eurotik (IBEZ, garraioa, fabrikatzailearen ekarpena, eta Kontzesionarioen Sarea eta matrikulatze zerga barne). Volvo Car Financial Services * markapean finantzatutako unitateen salneurria (Volvo Car Group) Banco Cetelem S.A.U. A-78650348-ren bidez, gubiernez 21.000 euro finantzatzeko. Gutxienezko iraupena, 48 hilabete. Gutxienezko egonaldia, 36 hilabete. S.A.U. Banco Cetelem-en onarpenari lotuta. Eskaintza 2019ko irailaren 30a baino lehen saldutako pertsona fisikoek bakarrik eragiten die. Ikusten den modeloa ez da eskaintzako bera.